

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2921

AGINDUA, 2012ko ekainaren 20koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Irale programaren baitan 2012. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako dei egiten duena.

Irakasleak alfabetatu edota euskalduntzeko programa (Irale) arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (EHAA, 1994-02-11) bere bigarren artikuluan dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleak euskaldundu edota alfabetatzea da programa horren xedea. Agindu horren berorren hirugarren artikulua hala dio: «Irale programak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz besteko ikastetxeetan, publiko zein pribatutan eta edozein irakasmilatan, lanean diharduten irakasleak hartuko ditu kontuan».

Hezkuntza Sailburuordetzak 2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetarako Aurkezpen Txostenak argitaratuak ditu formatu elektronikoan (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskara), bertan ikastetxe pribatuetako irakasleei irakastordu barneko ikastaroetan parte hartzeko aukera ematen zaielarik.

Kontuan hartu ditu, bide batez, ondoko lege eta dekretu hauek: batetik azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateratuaren VI. tituluko xedapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan diru-laguntzak emateko moduari buruzkoak; bestetik abenduaren 23ko 6/2011 Legea, zeinaren bitartez Eusko Legebiltzarrak, besteak beste, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastuen egoera onartu baitzuen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 6/2011 Legean jasotakoa. Hori guztia kontuan izanik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– 2012. urtean Irale programaren irakastordu barneko ikastaroren batean ikasketari gisa ari den irakaslerik duten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoei dei egiten zaie, aipatu irakasleen ordezkatzek sortutako gastuei aurre egiten laguntzeko asmoz. Honetarako, 2012. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetatik 3.001.400 euroko diru-partida erabiliko da. Diru-partida hori bi ebazpenetan banatuko da: lehenengoa, urtarriletik ekainera artekoa, partida osoaren % 60 izango da gehienez. Bigarren ebazpena, berriz, irailetik abendura artekoa. Lehen ebazpenean sobratzen dena, bigarrenera pasako da.

2. artikulua.– Deialdi honetan honako hauek parte hartu ahal izango dute:

a) 2012. urtean irakastordu barneko ikastaroetarako Hezkuntza Administrazioak liberazioak ematerakoan irakasle bat edo gehiago onartu(ko) zaizkien ikastetxe pribatuek edo gizarte-ekimenezkoek.

b) Dagokion ikastetxeko zuzendariak aipaturiko irakasleak liberatuak izateko adostasuna idatziz emandako ikastetxe pribatuek edo gizarte-ekimenezkoek.

3. artikulua.— Ikastetxe pribatuetako irakasle batek edo gehiagok, adierazitako epean irakastordu barneko ikastaroren batean parte hartzea eskatua izan beharko du ikastetxe horiek diru-laguntza jaso ahal izateko.

Gainera, deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxe pribatuak ondoko zereginetara behartuta daude:

a) Diru-laguntza onartzea. Jasoko den diru-laguntzaren berri eman eta 15 eguneko epean diru-laguntza horri idatziz uko egiten ez bazaio, laguntza hori onartutzat hartuko da.

b) Diru-laguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea.

c) Deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzen inguruan Ekonomia Jarraipenerako Bulegoak edota Euskal Herriko Kontu Epaitegiak bere egitekoak betez eska dezan edozein informazio eskaintzera behartuta dago laguntza-jasotzailea.

d) Diru-laguntzak eta laguntzak eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko, ezinbestekoa izango da izapidatzen ari datekeen itzultze edo zigortze-jardunbidea bukatuta egotea, baldin eta laguntza eta diru-laguntzok Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen eremuan badaude.

e) Zigor-edo administrazio-arloko zigorra jaso duten, eta horren ondorioz, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean dauden pertsonak edo erakundeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, sexu-diskriminazioan erori izanagatiko lege-debekuak barne, ezin izango dute agindu honetan araututako diru-laguntzen eta laguntzen deialdietara aurkeztu, zigorrak ezarritako aldian.

f) Kasuan kasuko Foru Aldundiak edo Hazienda Publikoak sinaturik ikastetxeek bere zergen ordainketan egunean egotearen ziurtagiria eskuratu behar dute.

g) Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen ziurtagiria eskuratu behar dute.

h) Ikastetxeak ekimen honetarako beste erakunderen baten diru-laguntza jaso edo jasotzekoa badu, horren azalpen zehatza egin beharko du eskabide-orriari erantsitako orri batean, edozein modutan ere diru-laguntzen baturak ezingo duelarik gairitu gastuaren % 100. Horretarako, behar den neurrian murriztuko da legokiokeen diru-laguntza.

4. artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdi honen bidez eskaintzen den diru-laguntza irakastordu barneko ikastaroetarako da. Irakasle baten ordezkoiari dagokion diru-laguntza irakasle horren irakasmailak eta ordezkotza-kontratuaren noiztik noiz artekoak erabakitzen dute. Horri dagokionez, honako laguntza-kopuruak ezarri dira, kostu gordin osoaren % 80ari dagozkionak:

Kontratua noiztik noiz arte	Irakasmaila	Diru-laguntza eurotan, % 100ekoa balitz	Diru-laguntza eurotan, % 80koa izanik
Urtarrietik ekainera (sei hilabete) (U1, U2, U3, 3000 eta 5000 ikastaroak)	Lehen Hezkuntza	21.006,82	16.805,46
	DBHko 1. zikloa	22.314,62	17.851,70
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	24.152,26	19.321,81
Urtarrietik martxora (hiru hilabete) (R300 ikastaroa)	Lehen Hezkuntza	10.503,41	8.402,73
	DBHko 1. zikloa	11.157,31	8.925,85
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	12.076,13	9.660,91
2 hilabete (R400 ikastaroa)	Lehen Hezkuntza	8.286,02	6.628,82
	DBHko 1. zikloa	8.801,88	7.041,50
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	9.526,73	7.621,38
1,25 hilabete (R500 eta R700 ikastaroak)	Lehen Hezkuntza	4.376,42	3.501,14
	DBHko 1. zikloa	4.648,88	3.719,10
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	5.031,72	4.025,38
Irailetik abendura (lau hilabete) (U1, U2, U3 eta R300 ikastaroak)	Lehen Hezkuntza	14.004,55	11.203,64
	DBHko 1. zikloa	14.876,41	11.901,13
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	16.101,51	12.881,21

Lehen ebazpena egindakoan sortutako soberakina, hala balegokio, bigarrenera pasatakoan, irailetik abendura arteko ebazpenari dagozkion diru-laguntzak emateko orduan soberakinik gertatuko balitz zera egingo da: atal honen lehenengo pasartean ezarritako diru-banaketak egin ondoren, soberakin hori txanda horretako bertako diru-laguntzen onuradunen artean banatu, hainbanaketa eginez (hots, guztien arteko diru-zatiketa eginez). Soberakin horren banaketa osagarriaz, hori bai, inola ere ezingo da ordezkoiaren gastu osoaren % 100 baino handiagoko diru-laguntzarik eman.

5. artikulua.– Diru-laguntza hori lanaldiaren proportzioan emango da, ordezko irakaslea egun osoz hartu ordezkotza denbora gutxiagorako kontratatzen den kasuetan.

Liberatuta dagoen ikasketariak baja-aldirik badu, Iralek ez dio ikastetxeari baja-aldiari dagokion neurrian pertsona horren ordezkotza-gasturik ordainduko.

Gizarte Segurtasunak ordaintzen duen zatia ez du deialdi honek estaliko.

6. artikulua.– Irakasle ordezkoiari ikastetxeak ordainduko dio honen lan-hitzarmenak diotenari jarraiki, eta ordaindu beharreko kopurua kontratuan ezarritako maila profesionalari dagokiona izango da.

7. artikulua.– Plazaren jabearen titulazioa eta irakasle ordezkorena berdina izango da edo bateragarria.

8. artikulua.– Ordezkoaren ordu-kopurua lralera doan titularraren liberaziozko ordu-kopuruaren parekoa izango da gehienez. Aipaturiko ordezkapena irakasle baten bidez edo batzuen artean egin ahal izango da.

9. artikulua.– Iraleko ordezkorearen lan-hitzarmenak bitarteko izaera izango du, irakasle erlijiosoen kasuan izan ezik. Mugagabeko lan-hitzarmena duten irakasleak ondoko kasu hauetan onartuko dira:

a) Aurreko ikasturtetik ikastetxean gela kopurua murriztu egin denean irakasleen kopurua mantenduz.

b) Ikastetxeak, lan-orduak gehitzeko helburuz, irakasleak egun osoz izan beharrean egun zatiz dituen.

10. artikulua.– Diru-laguntza jaso nahi duten ikastetxe guztiek, liberatu nahi lukeen irakasleak lraleren eskabide-orria ezarritako epean betetzeaz gainera, Agindu honen eranskinean ezagutzera ematen den eskabide-orria bete beharko dute, eta kasuan kasuko Lurralde Ordezkaritzan edo Zuzenean zerbitzuan aurkeztu (edota, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 38.4 artikuluan, adierazten duen edozein administrazio-gunetan). Ikastetxearen titularrak txanda berean gehienez zenbat irakasle liberatu nahi dituen zehaztu behar du deialdiaren eranskinean.

Horrezaz gainera, 2011-2012 ikasturteko 2. txandan (hau da, 2012ko urtarriletik gehienez ekainera) liberaturik dauden irakasleen kasuan, ikastetxeak ordezkorearen kontratuaren kopia erantsi beharko dio eskabideari. 2012-2013 ikasturteko 1. txandan (hau da, 2012ko irailetik gutxienez abendura arte) irakasleren bat liberatzen duten ikastetxeek, berriz, ikastaroa hasi eta hilabeteko epea izango dute ordezkorearen kontratuaren kopia aurkezteko. Dokumentazioa behar den epean aurkeztu ezean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez dio ikastetxe horri diru-laguntzarik emango.

11. artikulua.– Diru-laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea Agindu hau indarrean jartzen den egunetik hasi eta hilabetekoa izango da. Administrazioan jasotako eskabidean hutsune edo osatubeharren bat somatuko balitz, honen berri emango zaio eskatzaileari eta 10 eguneko epea emango zaio eskabidea osa dezan. Epe horretan ez bada eskabidea osatzen, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, horretarako ebazpena eman ondoren Herri-Administrazioetako lege-erregimena eta Administrazio prozedura arrunta arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikulua dionari jarraiki.

Eskabidean jasotako datu pertsonalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren fitxategi informatizatuetan sartuko dira. Legeak jasotzen dituen sarbide-, zuzenketa-, deuseztapen- eta aurkakotasun-eskabideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan erabil daitezke (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

12. artikulua.– Diru-laguntzak emateko orduan lraleren irakastordu barneko hautatze-irizpideak, urtero-urtero Aurkezpen Txostenean definitzen direnak, kontuan hartu beharko ditu Agindu honek. Hori dela-eta, kontuan izango ditu Sailak esparru horretako ikasketarien lehentasun-irizpideak, ikastetxe pribatuetako edo gizarte-ekimenezko ikastetxeetako ordezkari adituekin batera adostasun-puntuak eskuratzen saiatuz. Horretarako, sare pribatuko euskalduntze alorreko Jarraipen-batzordea eratua dago, bere partaideak ondoko hauek izanik:

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, edo bere ordezkoa, buru;
Euskara Zerbitzuaren burua;
Euskara Zerbitzuko irale programaren arduraduna, idazkari;
Patronalaren ordezkariak;
Unibertsitateaz kanpoko eskola-sare pribatuko sindikatuen ordezkariak.

13. artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduaren 4.3 artikulua xedatzen duenez (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Aurkezpen Txostenez jakinaraziak ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aldi aldi ekitaldiaren baldintza konkretuak. Horien arabera, 2012. urtean egin beharreko liberazio-txanda bakoitzaren iraupena 2011-2012 ikasturterako eta 2012-2013 ikasturterako Aurkezpen Txostenetan ezarritakoa izango da edota, bestela, bertan adierazten den moduan, hori eguneratzen duen edozein arautan adierazten den hainbatekoa.

14. artikulua.– Irale programaren bidez irakastordu barnean liberatuta dagoen irakasleak ez du aldi horretan irakasletzan jardungo eta bere ikastetxeak ezin izango dio diru-kopururik bere soldatatik kendu.

15. artikulua.– Ikasketarigaien kopurua 2012ko dirubideek onar dezaketena baino handiagoa denean, Iraleren Aurkezpen Txostenean emandako lehentasun-irizpideen arabera jokatu da. Beraz,

1.– Kupo zabal bat izango da, batetik, HE1 eta HE2rako prestatze-ikastaroetarako. Kupo horretan honako hauek izango dira oinarritzko ezaugarriak eta lehentasunak.

a) 2012an 55 urte baino gehiago beteko dutenek ezingo dute U1 egin, Jarraiban besterik erabakitzen ez bada.

b) Lehendabizi jarraipenekoak liberatuko dira: U3koak, eta gero, plazarik balego, U2koak.

c) U3koen artean hautatu behar balitz, HE1 lehenago lortutakoak lehenetsiko dira.

d) U2koen artean hautatu behar balitz, adinez gazteenak lehenetsiko dira.

e) Halere plaza librerik balego, lehenik U3ko ikasketari-nahi berriak hartuko dira, gero, U2koak, eta azkenik, U1ekoak.

f) Aurreko atalen berdinketa gertatuko balitz, adinez gazteenak lehenetsiko dira.

2.– Dagoen diru-partida kontuan izanik eta gaia Jarraiban landu ondoren, azpikupo bat adostuko da R ikastaroetarako. Kupo hori betetzeko, honako hautapen-irizpideak izango dira gidari:

a) 2012an 55 urte baino gehiago beteko dituztenek ezingo dute R ikastarorik egin, besterik erabakitzen ez bada Jarraiban.

b) Ikastetxe bakoitzetik aldi berean irakasle gehiegi R ikastaroetara joan ez dadin, arrazoizko neurri-mugak jarriko dira. Zehatz azaltzeko, honako hauek:

- 12 gela arteko ikastetxeetan, irakasle bakarra.
- 13 gelatik 24ra arteko ikastetxeetan, bi irakasle.
- 25 gelako (edo hortik gorako) ikastetxeetan, hiru irakasle.

c) HE2, EGA edo baliokidea lehenago lortutako irakasleak lehenetsiko dira.

d) Aurreko puntuan berdinketarik balego, adinez gazteenak lehenetsiko dira.

16. artikulua.– Berriaz sortutako Ebazpen-batzorde batek banan-banan aztertuko ditu ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoen laguntza-eskabideak, baldintzak bete dituzten ala ez aztertuz. Horren arabera 2012. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean parte hartzeko aukeratuen zerrendetako irakasleen ordezkapenen kontzeptupean zein ikastetxeri diru-laguntza eman proposatuko dio batzorde horrek Hezkuntzako sailburuordeari, azken honek dagokion Ebazpena argitara dezan. Bertan, ikastetxe bakoitzean liberazio partziala edo osoa izan duten irakasleen zerrenda azalduko da. Aipaturiko ebazpen-batzordearen partaideak hauek izango dira:

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, edo bere ordezkoa, buru;

Euskara Zerbitzuaren burua eta bertako Irale programaren arduraduna, azkenengo hau idazkari;

Hezkuntza Ordezkaritza bakoitzeko Hezkuntza Berriztatzeko lurraldeburua edota Euskara atalburua;

Irakaskuntza pribatuko euskalduntze arloko Jarraipen Batzordeko kide bat, patronalaren izenean;

Jarraipen Batzordeko beste kide bat, sindikatuen izenean.

17. artikulua.– Hezkuntza Sailburuordetzak bi laguntza-ebazpen jakinaraziko ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Laguntza-ebazpen horietan ikastetxeei emango zaien diru-laguntza adieraziko da, irakasleon eta beren ikastetxeen nortasun-ezaugarriak eskainiz eta laguntzaren zenbatekoa finkatuz. Lehenengo laguntza-ebazpenean 2011-2012 ikasturteko 2. txandan (hau da, 2012ko urtarriletik gehienez ekainera) liberatuta egonik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diruz lagunduko dituen irakasleen zerrenda argitaratuko da, 2012ko urriaren 15a baino lehen. Bigarren laguntza-ebazpena, aldiz, 2012-2013 ikasturteko 1. txandan (hau da, 2012ko irailetik abendura) liberatutako ikasketarien ordezkoen kontratua aurkezteko azken egunaren biharamunetik gehienik sei hilabetera argitaratuko da, txanda horri dagokion diru-laguntzaren kopuruen zerrenda adieraziz.

Ezarritako epeetan ebazpenak argitaratzen ez badira, eskabideak ezetsizat jo daitezke.

Laguntza-eskatzaileetarik bat edo gehiago emandako ebazpenarekin ados ez balego eta gora jo nahi balu, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean gorako errekurtsioa egiteko aukera izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean.

18. artikulua.– Diru-laguntza hauek denak batera ordainduko dira, salbu eta Agindu honen 10. artikuluan finkatzen diren betebeharrak betetzen ez badira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezko bakoitzari dagokion diru-laguntza ordainduko dio liberazio txanda amaitutakoan, beti ere txanda horretan gertatutako gorabeherak kontuan harturik.

19. artikulua.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko mekanismoak ezarriko ditu diru-laguntzok begiz jotako helbururako erabiltzen direla ziurtatzeko. Hau bete ezean, ikastetxeak itzuli egin beharko ditu. Ikastetxeren batek laguntza jaso eta ekimena aurrera eman ez edota baldintzaren bat bete gabe utziko balu, jaso duen diru-kopurua eta horri dagozkion legezko interesak itzuli egin beharko dizkio Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren

Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak arautzen duen bezala eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (1992-02-7ko EHAA) zehaztutako prozeduraren arabera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean edo, bestela, bi hilabeteko epea egongo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 20a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

